

Maidier Pia Unanue


B maila • 2 saria

Ni Maidier Pia Unanue naiz, 15 urteko beasaindarra. Txikitatik La Salle ikastetxean ikasten dut eta hau bertan ikasten dudan azken urtea izanik, ohore handia izan da sari hau irabaztea.

Nire denbora librean, marraztea eta kirola egitea gustatzen zait. Nahiz eta denbora faltagatik, askotan, hauek alde batera utzi. Baina orokorrean, gehien gustatzen zaidana, esperientzia berriak bizitzea da.

Istorio hau nire amonari eskaintzen diot. Berak kontatutako istorio eta kontakizun guztietatik lortu baitut inspirazioa.

Ea gustatzen zaizuen!



EKAITZAREN OSTEAN, EGUZKIA

"Bizitzak argituko zaitu momenturik ilunenetan, baina batzuetan, argi horrek itsutu egin zaitzake"

Ta! Ta! Tiro-hotsa besterik ez da entzuten inguruan. Umeak negarrez, arnasestuka, malkoa masailetik beheara dariela, gurasoak lurrian hiltzorian dauden bitartean. Armek utzitako odol arrastoak nabarmentzen dira baserrietako pareta zurietan. Jendea, zakua bizkar gainean duela, badoa, ihesi, gertatzen ari den hondamendiaz ohartuta.

Urte latz haietan, danbateko eta triskantza artean jaio zen Luisa, hori kontatu izan zioten behintzat beti bere amak eta aitona-amonek. Aitak ez zuen gustuko hartaz hitz egitea, eta inoiz ez zion bere jaiotegunari buruz zipitzik ere esan. Urte batzuk kanpoan egin zituztela ere bazekien, eta berak hiru urte zituenean itzuli zirela berriro euren etxera, nahiz eta orduantxe bete berriak zituen hamabi urterekin oso ondo ez ulertu zergatik utzi behar izan zuen bere familiak baserria.

Sei senidetatik bigarrena zen, bere ahizpa Teresaren hurrengoa, eta txiki-txikitatik, bere anaia-arreba guztien moduan, baserriko lanetan aritu behar izan zuen egun gehienetan. Hala ere, berari egokitzen zizkietenak baino askoz gehiago gustatzen zitzaizkion bere aitak eta anaiek egiten zituzten haiek: behorrak mendira eraman, behiak ondoko sorotik ukuilura ekarri, asteazkenetan herriko merkatura joan perretxikoak edo barazkiak saltzera... Baina neska izanik, amari eta ahizpei etxeko garbiketa eta zereginetan laguntzea tokatzen zitzaion gehienetan.

Luisaren amak ondo gogoratzen zuen bezala, neskatoa ez zen mundura unerik errazenean iritsi. Egun tristeak izan ziren haiek baserriko sukaldean, ondoko gelan Luisak mundu honetako lehen arnasak egiten zituen bitartean. Hala ere, eta nahigabez gainezka egon arren, familiako guztiek egin zioten ongi etorria: aitona Martinek, amona Anttonik, osaba-izebek... Denek, aitak izan ezik. Ordutik, urteak pasa ziren, baina Mari Carmenek ongi zekien bere senarraren portaera ez zela denbora luze hartan batera samurtu, eta geroz eta mingarriagoa egiten zitzaion, egunak joan eta egunak etorri, aitak alabarekiko zuen jokabide urrun eta hotza jasatea. Berak aldiz, agian aitaren arrotasuna ezkutatu nahian, beti eman zion hain zorigaiztoko unean jaiotako haurtxo hari, bere maitasunik handiena.

Luisak oso ondo zekien aitak ez zuela bera bere anai-arrebak bezala hartzen, eta ama beti hori estaltzen saiatzen zela bera gaizki sentitu ez zedin. Dozena bat urte besterik ez eduki arren, bere etxeko gorabeherak oso ondo zekizkien jada. Agian horregatik, izaera sendo eta indartsuko neska zen, ez zen segituan errenditzen zen horietakoa, helburua lortu arte etsi gabe jarraitzen zuenetakoa baizik. Hala esaten zioten bere anaiek ere haien aurka egindako apustuak irabazten zituenean, mandoa baino egoskorragoa zela. Baina Luisarentzat egunsenti berri bat, bizitzaren aukera berri bat zen bere aitarengana hurbiltzeko, bere aitaren bihotz gogor hura biguntzeko, eta egunero-egunero, gosaldutik ondoren, proposamen berri batekin etortzen zitzaion aitari: aita, nahi baduzu gaur baratzeko lanetan lagunduko dizut, edo, mendira zurekin joan naiteke abereak nondik nora dabiltzan ikustera. Aitak ordea, azken orduko eginbeharren bat zuela esaten zion gehienetan, ezinezkoa zela, edo Teresak lagunduko ziola, edo Peruk, txikiagoa izan arren, indar gehiago zuelako, eta etxean geratzeko amari laguntzen. Gero, behar zituen traste eta tresnak hartu, eta sukaldetik ateratzen zen Luisaren atsekabeak inongo axolarik izango ez balio bezala.

Ez zen kanpotik ematen zuena ordea aitak barnean zeramana. Nahigabez betetzen zuen egunero-egunero bere alaba postura hartan utzi behar izateak, eta bere buruarekin zuen haserrea handituz zihoan egunetik egunera egoera hari buelta emateko gai ez zelako. Bazekien aspaldian gertatutako kontuak zirela haiek, Luisak ez zuela inongo errurik gertatutakoan, bera hala portatzeak hainbeste urte eta gero ez zuela inongo zentzurik, baina ez zen gai egoera hari buelta emateko, bere alaba hartu eta besarkada batez asko maite zuela esateko, eta horrek bere amorrua eta haserrea egunetik egunera areagotu egiten zuen, bere bakardadean orduan eta gehiago murgilduz.

- Zergatik da aita horrelakoa nirekin ama? Zergatik ez du inoiz nirekin egon nahi? Teresa, Peru edo Ferminekin gauzak egiteko prest dago beti, zergatik nirekin ez? -galdetu zion egun batean amari begietan malkoak zituela.

Amak hasperen egin eta bazela behingoz bere alabari gauzak nola izan ziren kontatzeko garaia pentsatu zuen:

- Begira Luisa, aitak asko maite zaitu, baina bada aspaldian pasatako gertaera bat, oraindik behar bezala gainditu ez duena. Oso gauza tristea izan zenez, eta oraindik ere hura gogoratzeak gure bihotzak saminez betetzen dituenek, ez dugu inoiz kontu hori mahai gainera atera, isilean gorde dugu guztiak, eta horregatik, ez zuk, eta ez zure anai-arrebek, ez duzue inoiz horren berri izan. Teresak oroitzapen arinen bat izan zezakeen hasieran, baina urteak pasa dira eta ez dut uste jada ezer gogoratzen duenik. -Luisak ez zuen tutik ere ulertzen. Zer zen familiak azken urte horietan ezkutuan gorde ziotena?- Gerra erabat indarrean zegoen egun haietan. Tiro hotsak nonahi entzuten ziren. Aitak behin eta berriro esana zidan lehenbailehen etxetik

alde egin beharrean geundela, han jarraitzeak arrisku handia zuela denontzat, baina nire sabela oso handitua zegoen, nire kontuen arabera orduan zela aste bete jada jaiota izan behar zenuen, eta bere haserrea nabarmena izan arren, gure irteera egun batzuk gehiago atzeratzea erabaki genuen zu jaioko zinela esperoan. Zorigaiztoko egun hartan, betiko lanetan ari ginen denok, ni sukaldean afaria prestatzen Teresa txikia zaintzen nuen bitartean, eta aita eta Txomin, gaur egun zure anaia zaharrena izan beharko litzatekeena, ukuiluko lanak egiten. Bat-batean, gaizki samar sentitu nintzen eta aitari oihu egin nion etortzeko, bazetozela mundura uste bainuen. Aitak momentu batean Txomin txikia bakarrik utzi zuen ukuiluan, eta orduantxe, behi malapartatu batek ostikoz jo eta lurrera bota zuen hiru urte besterik ez zituela. Konorterik gabe, buruz behera lasto artean larri zaurituta geratu zen gizajoa! Oso gogorra izan zen guztiontzat, baina batez ere aitarentzat, bere buruari inoiz ez baitio barkatu Txomin bakarrik utzi izana. Bost egun egon zen hiltorian gure seme maitea, zuk mundura etortzeko behar izan zenuen denbora berdina, eta hari saminez agur esaten genion bitartean jaio zinen zu. -Amak atsedeen txiki bat egin eta honela jarraitu zuen. -Gainera, hori gertatu ondoren, apenas izan genuen gure txikitxo behar bezala agurtzeko denborarik. Gauzak oso gaizki zeuden inguruan, eta ni oraindik erabat osatu gabe egon arren, behar-beharrezko trasteak hartu eta zuk egun batzuk besterik ez zenituela, herria utzi eta beste aldera abiatu ginen laurok. Aitak, bere atsekabea bakarrik beste seme batek sendatu ahal izango ziola aitortu zidan geroago, baina zu neska izan zinen, eta egun hartantxe, bere maiorazkoa galdu eta beste alaba bat izatean, bere mundua bertan behera erori zen.

Aho bete hortz utzi zuen Luisa. Ikaragarria zen amak kontatu zion istorioa, bere istorioa. Bazkal ostean, ama bazkariko ontziak garbitzen ari zen bitartean eta inor konturatu gabe, mendira igo zen bere aitaren bila. Gaztainadi handiaren ondoko hesian, zutik, etxeko ardiak zeuden aldera begira aurkitu zuen. Ez zuen bere burua biratu Luisa iritsi zenean. Bere begiradak zeruertzean galdurik jarraitzen zuen. Luisari asko kostatu zitzaion lehen hitz haiek bere barnetik ateratzea: nola esan aitari asko sentitzen zuela gertatutako guztia, bere samina ulertzen zuela, gustatu izango litzaiokeela mutila izatea bere nahigabea arintzeko, uzten bazion semerik onenaren pareko izango zela bera... Azkenean, bientzat luze samarra izan zen isilune hotz baten ondoren, elkarri begiratu eta hizketan hasi ziren, bakoitzaren atsekabe eta bihotz-minak besteari estalkirik gabe adierazi asmoz.

Denbora luzean egon ziren belar gainean eserita, bata besteari, konfiantza osoz, beren sentimenduak azaltzen. Aitaren begietatik malkoek masailean behera irrist egiten zuten, baina aspaldiko partez, egun eguzkitsuetako zeruaren koloreko begi samur haietan ez zen inolako lainorik nabarmentzen. Bere alaba maitearekin ohiko zuen urruntasuna alde batera utzi eta Luisa behar bezala besarkatzea lortu zuen, hainbat aldiz amestu zuen moduan. Ilunabarrak gaua bertan zela ohartarazi zien arte egon ziren han, eta etxerako bidean elkarri gauza handirik esan ez bazioten ere, bai bata eta bai besteak, bazekiten beraientzako garai berri bat hasten zela une hartatik aurrera, ulermenez eta itxaropenez betetako garai bat.

"Pertsonak bakarrik munduan hotzez dar-dar egiten du familia ondoan ez badu" Andre Maurois